

# KONTZERTUAK SOINUENEAN

## UDABERRIKO KONTZERTUA

2018ko maiatzaren 5ean - 18:30 - Auzokalte elkartearen - 5 euro

### EZPELUR Dultzaineroak



**Tomás Díaz:**

dultzaina lehena.

**Xabier Maritzalar:**

dultzaina bigarrena.

**Joseba Lasarte:**

dultzaina lehena eta perkusioa.

**Edurne Jauregui:**

dultzaina bigarrena eta perkusioa.

**Jesús Soria:**

tuba.

**Shanti Díaz:**

atabala.

**GAITARIAK**

Benetan, gaita soinua ezinbestekoa egin da gure herrietako jaietan. Egunsentiko dianak, erraldoi konpartsarekin paseoa, arratseko dantzaldia... edota zergatik ez, bazkaloste musikatu bat gaita eta danbor erritmoak erabiliz!

Ezpelurrek aukera guzti hauek eskaintzen ditu. Zaindutako erreperitorio zabal batekin, genero guztietako piezak jotzen ditugu, gurea den instrumentu maite honek dituen aukerak aprobetxatuz. Berrogei urte baino gehiagoko esperientzia du taldeak bere atzean.

**ETA GOIZEAN  
(HAURRENTZAT)**

### ERRALDOIEKIN DANTZAN

*Lekua:* SOINUENEA

*Eguna:* 2018-05-05

*Ordua:* 11:30

EZPELUR Dultzaineroek gidatuta dantza tailer berezia izango dugu Soinuenean.

*ERRALDOIEKIN* nola dantzatzen den ikasiko dute haurrek eta haien gurasoek.

**ERRALDOIAK**

Urteak dira Nafarroako herri txikieeneko jaietan hutsune bat ikusten genuela, bertan antolatutako egitaraua eta haurrentzako ekitaldiak eskasak direlako. Horregatik, eta egunetik egunera etxeko txikienentzako erakargarriagoa den tradizio bat izanik, pentsatu genuen honelako irudiak egin behar genituela. Ordu ezkerro Ezpelur Gaitarien musikaz alaituta, eta herriz-herriz dantzatuak izan daitezen, herriek hala eskatzen dutenean, hara eramaten ditugu gure erraldoiak ere.

# VICENTE PRADO “EL PRAVIANU” CELESTINO ROZADA




**Vicente Prado Suárez “El Pravianu”**

Asturiasko Viella (Siero) herrian 1964ko maiatzean sortua da. Txikitatik azaldu zuen asturiar folklore eta herri-musikarako zaletasuna, denborak aurrera egin ahala bizibide bihurtu duena. Folkloreko alor ezberdinak garatu ditu. Hala, gaiteroa izateaz gain, gaitak egiten eta jotzen erakusten aritzen da. Gaur egun, Asturiasen gaitak egiten dituen artisau bakarretakoa da. Horretaz gain, bakarrikzketak ematen ere aritzen da.

Gaita ikasten 13 urte zituela hasi zen Luis de Arnizo irakaslearekin. Soinu-tresna honekin zuen trebezia berehala geratu zen agerian, hainbat lehiaketetara aurkeztuaz eta haietako gehienak irabaziaz. Geroztik nagusiki Asturiasko herrietan barrena aritzen da era ezberdinetako ekitaldietan. Asturiastik kanpora asturiar jatorriko jendearen topaguneak diren herrialde ugaritako Centros Asturianos-etan jo izan du.

Lehen diskoa 1987an argitaratu zuenetik hainbat disko grabatu ditu bakarrik. Horretaz gain, beste musikarien diskoetan ere parte hartu du gaita asturiarrarekin.



**Celestino Rozada Tamés**

Asturiar tonada kantatzen duen abeslari hau Porrúa (Llanes) herrian jaio zen 1972ko maiatzean.

Formazioz autodidakta da eta gazte-gazte hasi zen tonada lehiaketetan parte hartzen. 1998 urtean gazte mailan finalera iritsi zen hainbat hiritako txapelketetan.

Alemanian lanean ibili zen garaian tonada abeslari moduan aritzeari utzi zion. Handik bueltatu zenean berriro lehiaketetara itzuli zen tonadetan aditua den Javier el d’Arroes-ek bultzatuta.

Lehen garaipena 2006an Amieva-ko lehiaketan lortu zuenetik ugariak izan dira Asturiasen antolatzen diren tonada txapelketetan lortu dituen sariak.

Muséu Etnográfico del Oriente-ren bitartez argitaratu zuen lehen diskoa 2007 urtean.

2009an Celestinok “Al pie del Cuera” disko berria atera zuen. Hamalau piezaz osatutako diskoa horretan, abesti batzuetan berak bakarrik kantatzen badu ere, beste batzuetan El Pravianu-k bere gaitarekin laguntzen du.

## AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria kontzertuko leku berean izango da, hau da, Auzokalte elkartearen.  
Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

**Kontzertua eta afaria: 20 euro**



**kontzertu honen  
laguntzaileak:**

**AUZOKALTE**  
ERGOIENGO AUZO  
ELKARTEA